

i Zer da e-rezeta?

Errezeta elektronikoa da: botikak agintzeko sistema berri bat, seguruagoa eta eraginkorragoa; desagertu egingo da paperean egiten den ohiko errezeta. Orain, farmazian osasun-txartela aurkeztu beharko duzu preskribitutako medikamentuak lortzeko.



Osasun-txartela medikamentuak preskribatzeko eta eskuratzeko sistema berriaren tresna da, eta gainerako osasun-prestazioetarako ere balio du.



e Nola funtzionatzen du?

Hurrengo mediku-kontsultara eraman osasun-txartela. Ez dizute errezetarik emango, baina bai **tratamendu-orria**: informazio argi eta erraza, non medikamentuen izenak, dosiak eta tratamendua amaitzen den edo berriz aztertu behar den eguna agertuko diren.

Farmazian, osasun-txartelaren bidez identifikatuko duzu zure burua, eta zuzenean emango dizkizute botikak. Eta etenik gabeko medikazioa agindu badizute, farmazian bertan jaso ahal izango duzu, aldi-an-aldian, kontsultara joan beharrik gabe, hurrengo mediku-azterketa izan artean.

! Adi:

Oraindik paperean egindako errezetak badituzu, **GORDE ITZAZU**, erabili ondoren soilik izango baituzu sistema berrirako sarbidea.

+ Zer onura ekarriko dizkit?

- ➔ **Erosotasuna**, jada ez baita asistentzia-zentrorra errezeten eta oniritzien bila bakarrik joan beharko; zuzenean, farmazian emango dizkizute medikamentuak.
- ➔ **Informazio zehatzagoa** eta argiagoa, kontsultan emango dizuten tratamendu-orri berriari esker.
- ➔ **Segurtasun handiagoa**, osasun-profesional orok jakingo baitu zer botika hartzen ari zaren, eta hala, saihestu egingo baitira medikamentu-interakzioak edo bikoizketak.
- ➔ **Fidagarritasun osoa**, farmazian ziur jakingo baitute zer medikamentu eta dosi agindu dizuten, eta arreta farmazeutiko hobea emango baitizute.
- ➔ **Osasun-profesional guztien koordinazio hobea** (osasun-zentro eta farmazietakoena), parte hartze hobea eta arinagoa bermatzeko.

Eta hori guztia, gaur egungo osasun-prestazioak gordez eta datu pertsonalen isilpekotasuna bermatuz.



? Zalantzarik?

Jo zure **osasun-zentrorra** edo zure herriko **edozein farmaziatara**. "E-rezetaren gida gida" emango dizute; hor aurkituko duzu errezeta elektronikoa buruzko informazio guztia.

Internetetik ere deskarga dezakezu: www.e-rezeta.net.



Receta @lectrónica



Ahora, tu tarjeta es tu receta


Osakidetza

¡COMPROMISO CON LAS PERSONAS!


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAIA
DEPARTAMENTO DE SALUD